

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

1188

AGINDUA, 2018ko otsailaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen agindua aldatzen duena.

Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 30. artikuluko 2. apartatuan ezartzen denez (Sustapena), ikaslea gehiezinaz lau aldiz aurkeztu ahal izango da lanbide-modulu beraren azken ebaluaziora eta kalifikaziora; alabaina Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalaren kasuan, bi aldiz bakarrik aurkeztu ahal izango da. Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretu hori otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko otsailaren 19ko Aginduaren (2010eko martxoaren 24ko EHAA) 8. artikulua (Ohiko deialdia), 1. zenbakian, honako hau ezartzen du: bertaratze bidezko erregimenean, lanbide-modulu bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal izango da, Lantokiko prestakuntza eta Proiektua lanbide-moduluak izan ezik. Bi modulu horiek bi deialditan ebaluatu ahal izango dira.

Dekretu horretan adierazitakoa ez urratzeko xedez, Lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko otsailaren 19ko Aginduaren 8.1 artikulua aldatu behar da, dekretu horretan zehaztutakoaren ildotik.

Hori dena kontuan izanik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lanbide-heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko otsailaren 19ko Agindua aldatzea.

Beste idazkera bat eman zaio 8. artikulua 1. apartatuari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

8.1 artikulua.– Lanbide-modulu bakoitza lau deialditan ebaluatu ahal izango da, Lantokiko Prestakuntzakoa izan ezik. Hori bi deialditan ebaluatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.